



TURISMO, MERKATARITZA  
ETA KONTSUMO SAILA  
Merkataritza Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE TURISMO,  
COMERCIO Y CONSUMO  
Dirección de Comercio

**HIRI MERKATARITZAREN LANKIDETZA, DINAMIZAZIO ETA  
LEHIAKORTASUNEN ZONAKO ESTRATEGIAK SUSTATZEKO LANGUNTZEN  
AGINDUARI BURUZKO GALDERAK ETA ERANTZUNAK, HIRIGUNE 2026**

Aurkibidea

1.	Nola eta non aurkeztu dezaket laguntza-eskaera? .....	3
2.	Nori zuzenduta daude?.....	3
3.	Zein da laguntza eskatzeko epea? .....	3
4.	Eskaeraz gain, beste zein dokumentu aurkeztu behar dut? .....	3
5.	Zer laguntzen da diruz?.....	4
6.	Zein da laguntzen zenbatekoa? .....	6
7.	Nola komunikatu naiteke laguntza hau kudeatzen duen administrazioarekin? .....	7
8.	Dokumentazio gehigarria aurkeztea.....	7
9.	Nola jakin dezaket laguntza onartu zaidala?.....	7
10.	Zein da Administrazioak laguntza ebazteko daukan epea? .....	7
11.	Diruz lagundu al daitezke eskudirutan emandako sariak? Noiz arte trukatu behar dira baleak edo bonuak diren sariak?... ..	7
12.	Gauzatzeko eta fakturatzeko azken eguna 2025eko abenduaren 31 izango da. Zein da ordaintzeko azken eguna?.....	8
13.	Nor da ekintza bakoitzaren onuraduna?.....	8
14.	Nor da ekintza bakoitzaren onuraduna?.....	8
15.	Farmaziei buruzko argibideak.....	8
16.	Zeintzuk dira diruz lagundutako jardueretan parte har dezaketen merkataritza-establezimenduak? (Berariazko parte-hartzea eskatzen dutenak).....	8

<b>17.</b>	<b>Hiriko merkataritza-jarduerarekin lotutako zerbitzuak. ....</b>	<b>8</b>
<b>18.</b>	<b>Zer esan nahi du BEZetik salbuetsita egoteak edo BEZetik salbuetsita ez egoteak? Nola erregistratu.....</b>	<b>9</b>
<b>19.</b>	<b>Non sartu behar dira faktura jakin batzuetan egin behareko atxikipenak, bereziki autonomoei egindako ordainketen kasuan? .....</b>	<b>9</b>
<b>20.</b>	<b>Zeharkako gastuak. Gehienez % 15. Nola kalkulatu?.....</b>	<b>9</b>
<b>21.</b>	<b>Nola erregistratu diruz lagundu daitezkeen zeharkako gastuak?.....</b>	<b>10</b>
<b>22.</b>	<b>Nola erregistratu deskontu-bonuak izan dituzten ekintzak?.....</b>	<b>10</b>
<b>23.</b>	<b>Zer dira aldaketak?.....</b>	<b>10</b>
<b>24.</b>	<b>Zer eragiten dute aldaketek jarduketan zenbatekoan?.....</b>	<b>10</b>
<b>25.</b>	<b>Balorazio-eta partaidetza-adierazleak balorazio-aktan.....</b>	<b>10</b>
<b>26.</b>	<b>Gastuen justifikazioa.....</b>	<b>11</b>
<b>27.</b>	<b>Jarduketan kontratazioa jakinaraztea.....</b>	<b>11</b>

## 1.- Nola eta non aurkeztu dezaket laguntza-eskaera?

Bitarteko elektronikoen bidez soilik aurkeztu ahal izango da, bide telematikoz; Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoen bidez (<https://www.euskadi.eus/servicios/1015613>). Eskaerak aurkezteko beharrezkoa izango da identifikazio elektronikoa erabiltzea (<https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/>).

## 2.- Nori zuzenduta daude?

a) Merkatarien elkarteek eta zona-eremuko elkarte mistoek formalki eratuta eta inskribatuta egon beharko dute beren izaera juridikoa edo eginkizunak direla-eta 2024ko urtarrilaren 1a baino lehen nahitaezkoak diren erregistroetan.

b) Hiri-merkataritzaren plataformak, elkarte multzoak edo elkarteak, pertsona fisiko edo juridikoen multzo gisa eratuak, publikoak zein pribatuak, edo edozein motatako unitate ekonomiko edo ondare, nortasun juridiko propioa duena, eta, zuzenbideak onartutako edozein eran, 2026eko urtarrilaren 1ean horrela inskribatuta daudenak.

Eskatzen den gutxienezko ordezkaritza ofizios egiaztatuko du Administrazio honek, Merkatarien Elkarteen Erroldan dagoen informazioa egiaztatuz.

## 3.- Zein da laguntza eskatzeko epea?

Eskabideak aurkezteko epea agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta hura argitaratzen denetik hilabete batera amaituko da.

## 4.- Eskaeraz gain, beste zein dokumentu aurkeztu behar dut?

Eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Eskatzailearen identitatea egiaztatzen duen dokumentazioa; horretarako, eratze-eskritura, estatutuak eta erregistroko inskripzioa aurkeztu beharko dira.

b) Erakunde eskatzailearen identifikazio fiskaleko txartela, baldin eta ez badu nahi instrukzio-organoak informazio hori lortzea administrazioarteko elkarreragingarritasun-zerbitzuen bitartez

c) Laguntzaren bidez finantzatu nahi den jarduera bakoitzaren azalpen-memoria, merkataritza-ikuspegitik egina, gutxienez informazio hau jasoko duena:

1) Garatu beharreko jarduketa bakoitzaren gauzatze-proiektua, zera adierazten duena:

1.a. Lortu nahi diren helburuak.

1.b. Gauzatu beharreko ekintzak.

1.c. Egindakoaren eraginkortasuna neurtzeko adierazleak.

2) Sarreren eta gastuen aurrekontu xehatuak.

3) Gauzatze-egutegia.

4) MSPB azterlanean edo hura ordezkatzen edo osatzen duen beste azterlan batean sartzen dela.

Udalerrriak ez badu MSPB azterlanik, egiaztatu behar du egin nahi diren jarduketa egokiak direla udalerriko merkataritza garatzeko..

5) Jardueran parte hartzeko aukera jakinarazteko erabiliko den sistema, hala behar den kasuetan

d) Elkarteko edo hiri-merkataritzako plataforma, elkarte multzo edo elkarteko idazkariaren ziurtagiria, kideen zerrenda jasotzen duena, 2024ko abenduaren 31n eguneratua, eta kide bakoitzarengandik azken ekitaldian bildutako kuotak. Enpresen zerrenda sexuaren arabera desagregatu behar da; alegia, merkataritza-enpresa kideetako titular diren emakumezkoak adieraziko dira, alde batetik, eta titular gizonezkoak, bestetik.

e) Udalerriko elkarteek sinatutako akordioa, 4 artikuluan adierazitakoaren arabera.

f) Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduko 22.2 artikuluan identifikatzen diren administrazio-ziurtagiri positiboak, baldin eta eskatzaileak aurka egiten badio kudeaketa-organoak zuzenean agiri horiek eskuratzeari.

### **5.- Zer laguntzen da diruz?**

Diruz lagundu daitezkeen jarduketak lerro hauetan kokatuko dira, lehentasunez:

1- Hurbileko merkataritza dinamizatza bideratutako azterlanak.

Aholkularitza-enpresa espezializatuek beharizan-azterketak eta programak egitea, merkataritza-jarduketako proposamen zehatzak, jarduteko plan estrategikoak eta establezimendu elkartuen salmenta-puntuko diagnostikoak formulatzeko, erosketa-esperientzia hobetze aldera. Azterlan horiek zehatz-mehatz definituko dituzte gauzatze-epeak, zuzeneko eragina izango dute hurbileko merkataritzaren dinamizazioan, eta merkataritza-zona edo merkataritza-sektore espezifikoetara zuzenduta egongo dira.

Lerro honen gehieneko zenbatekoak, diruz lagundu daitezkeen guztizko zenbatekoari dagokionez, ezingo du haren % 20 gainditu, eta, nolana ere, diruz lagundu daitezkeen zenbatekoa gehienez 20.000 euro izango da.

2- Hurbileko merkataritzari laguntzea.

Hurbileko merkataritzari laguntzea, merkataritza-sektorea edo zona batzuk sustatzeko ekintzak eginez, xede espezifiko hauetara bideratuta:

a) Erakunde onuradunek sustatuta, azokak, animazio-jarduerak eta antzeko ekitaldiak egitea, merkataritza-zona jakin bat sustatzeko, eremu jakin batean edo jarduera-sektore batean kontsumoa bultzatzeko edo udalerria erosketetarako helmuga gisa ezagutzera emateko. Sustapen-ekitaldien kasuan, hornidura-kontzeptuen gastua ezingo da izan jarduketaren guztizkoaren % 20 baino handiagoa.

b) Sustapen-kanpainak egitea, zuzeneko salmentak bultzatzeko eta kontsumitzaileak fidelizatu eta erakartzeko, saltoki txikien abantailak azpimarratuz.

c) Merkataritzaren arloa eta merkataritza- jarduerarekin lotutako zerbitzuak sustatzea, kontsumitzaileei sariak, opariak eta primak emanez; horretarako, lehiaketak, zozketak edo merkataritza-sustapeneko eta -ordezkaritzako antzeko beste metodo batzuk erabiliko dira, barnean hartuta saltoki-bonuaren berezko kanpainak

eta antzeko beste toki-kanpaina batzuk. Kanpoan geratuko dira eskudiruzko sariak.

- d) Zona jakin batera merkataritza-fluxuak erakartzea erraztuko duten merkataritzaren zerbitzu osagarriak antolatzea eta sustatzea.
- e) Sektore guztiarentzat interesa duten lankidetzaz-zerbitzuak garatzea eta kontratatzea, eskalako ekonomiak sortzen dituzten proiektuak egiteko, negoziazio onuragarriak lortzeko eta abar.
- f) Gizartearen eta ingurumenaren aldetik kontsumo jasangarria bultzatzen duten jarduketak, bai eta kontsumo arduratsua, kontzientea eta hurbilekoa bultzatzen dutenak ere, helburua izanik bertako produktuen aldeko apustua finkatzea.
- g) Tokiko merkataritzari buruz sentsibilizatzeko jarduketak, eta ingurumeneko eta kontsumo arduratsuko jardunbide onen balioa azpimarratzen dutenak.
- h) Auzoetan lokal hutsek sortzen dituzten arrakalak ezabatzea bideratutako jarduketak; hau da, lokal hutsak dinamizatzeko helburua dutenak.

Hurbileko merkataritzara zuzendutako jardueren **adibideak**: publizitate-espazioak kontratatzea, stocka saltzeko espazio komunak bilatzea (kale-azoka), udalerraren publizitatea, leialtze-txartelen ezarpena, salmenta gurutzatua bultzatzea, tonbolak, "Rasca-gana" txartelak, pertsonaia adierazgarriei buruzko aipamena (Olentzero, Errege Magoak ...), aparkalekua edo garraio publikoa eskaintzea, Gabonetako argiztapena, emaitza komertzialak hobetzearekin zuzenean lotutako haurrentzako jolas-jarduerak (patinaje-pista, puzgarriak...), biniloak, informazio- eta hedapen-liburuxkak (flyers), erosketen garraio ekologikoaren sustapena (etxez etxeko banaketa bizikleta elektrikoan), efemerideak/data seinatuak/hunkigarriak (Black Friday, San Valentín ...), zozketak, merkataritza-gidak, deskontuak, publizitate-bannerrak, sustapen-bideoak, irudi unitarioa sendotzea/marka sortzea (dekorazioa/apaingarri homogeenak), komunikazio-kanpainak, erakusketak, ingurune osasungarriko kanpainak, merkataritzarako sariak/galak, Sukaldaritzako dastaketak (txokolatada, barraskilo-jana...), girotze musikala, aukera-azokak, tokiko merkataritza sustatzeko sentsibilizazio-kanpaina eta dekorazio tematikoak

### 3- Digitalizazioa eta teknologien erabilera.

Digitalizazioko eta teknologiak erabiltzeko tresnak ezartzea merkataritza-zonetan; adibide gisa aipatzen dira hauek:

- a) Merkataritzarako aplikazio digitalak ezartzea: soluzio eta gailu digitalak instalatzea (erakusleho birtualak, sentsoreak, eskanerrak, mikrofonoak); marketineko tresna digitalak aplikatzea (kudeaketako software aurreratua, ordainketa-sistemak eta abar).
- b) Big data edo datuen prozesamendua; adibidez, sare sozialetako mezuak, telefono mugikorreko seinaleak, mezu elektronikoak, inkestetako datuak eta abar.

- c) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) erabiltzea, gehiago balia daitezzen sare sozialak, webguneak eta merkataritzara bideratutako mapa komertzial geoposizionatuak.
- d) Onlineko eta formatu txikiko erosketak jasotzeko guneak ezartzea, bai gune fisikoetan, bai etxerako bidalketetan.
- e) Proba pilotu teknologikoak ezartzea eskala txikian, sektorearen eta kontsumitzaileen eskariei erantzuteko.
- f) Onlineko merkataritza garatzea eskura dauden salmenta-plataformen bidez, eta haien mantentze-lanak egitea.
- g) Mugikorrerako aplikazioak garatu eta mantentzea, eta txikizkako saltokien berri ematea aplikazio horien bidez.
- h) Dinamizazio-plataformak ezarri eta mantentzea, zeinetan txertatuko baitira udalaren hiri-ekonomiaren ikuspegia eta, besteak beste, aisialdiarekin, ostalaritzarekin, turismoarekin eta kulturarekin dituen sinergiak.

f), g) eta h) letretan adierazitako mantentze-lanetarako ekintzen zenbatekoak ezingo du gainditu dirulaguntzaren guztizko zenbatekoaren % 25. Horiek garatu eta mantentzera bideratutakoei dagokienez, ehuneko horrek ezin izango du eskabidean aurkeztutako zenbateko osoaren % 35 gainditu. Nolanahi ere, merkataritza-zuzendaritzako teknikariak arduratuko dira proiektuak baloratzeaz eta haien eraginkortasuna eta egokitasuna aztertzeaz.

#### 4- Konpetentzia digitalei buruzko prestakuntza.

Konpetentzia digitalak areagotzeko prestakuntza-ibilbideak, saltoki bakoitzaren digitalizazio-mailari egokituak, helburu dutenak udalak tokiko hiri-ekonomia dinamizatzeko egiten dituen jardueretan txikizkako saltokiak sartzea; eta txikizkako saltokietan beharrezkoak diren teknologiak txertatzeko ezinbestekoak diren konpetentzien gaineko prestakuntza, fakturazioaren eta tributazioaren arloetan indarrean dagoen araudia bete dezaten (adibidez, TicketBai sistemarena).

#### 6.- Zein da laguntzen zenbatekoa?

1- E mandako laguntzen zenbatekoa 2. artikulua aplikatuta lortzen den emaitzatik ahalik eta handiena izango da, betiere artikulua honen hurrengo puntuan zehaztutako udalerriko muga kontuan hartuta.

2.artikulua: agindu honek onuradun izateko eskatzen dituen betekizunak betetzen dituzten erakundeei laguntzak ematea du helburu, baldin eta eskabideak behar bezala eta sasoiz egin badituzte.

Horretarako, programa finantzatzeko erabili beharreko aurrekontu-zenbatekoak ez badira nahikoak egindako eskabideei gehieneko zenbatekoetan aurre egiteko, laguntza eskabideen artean hainbanatuko da.

2- Udalerriko merkataritari-ekarteen multzorako dirulaguntzaren gehieneko muga eragiketa honen emaitza izango da: merkataritza-tartearen arabera dirulaguntza bider udalerriko merkataritza-dentsitatearen koefizientearen (III. eranskinaren arabera).

Saltoki kopuruaren tartea	Dirulaguntza, tartearen arabera
0 – 40	12.000,00 €
41 – 150	27.000,00 €
151 – 250	35.000,00 €
251 – 700	55.000,00 €
701 – 1.500	70.000,00 €
1.501 – 3.000	95.000,00 €
>3.000	125.000,00 €

### **7.- Nola komunikatu naiteke laguntza hau kudeatzen duen administrazioarekin?**

Eskaera egin ondorengo izapideak (jakinarazpenak, errekerimenduak, dokumentazioa aurkeztea eta prozeduran inplikaturako gainerako izapideak) Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoko «Nire karpeta» aplikazioaren bidez soilik egingo dira (<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta/>).

### **8.- Dokumentazio gehigarria aurkeztea.**

Erakunde eskatzaileak prozeduraren edozein unetan aurkeztu duen nahitaezko dokumentazioaz gain, beste agiri batzuk ere aurkez ditzake <https://www.euskadi.eus/micarpeta/helbidearen> bidez. Bai hala eskatu bazaio bai bere borondatez egin badu; hala nola, aitortutako edozein datu argitzeko memoria bat.

### **9.- Nola jakin dezaket laguntza onartu zaidala?**

Laguntza-deialdiaren ebazpena Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-oholean argitaratuko da (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>), eta hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du jakinarazpen-balioa.

Eskatzaile guztiei jakinaraziko zaie, “nire karpeta”. Jaso ondoren, 15 egun izango dira onartzeko. Onartzen ez bada, laguntzari uko egingo zaio.

### **10.- Zein da Administrazioak laguntza ebazteko daukan epea?**

Merkataritza Zuzendaritzak, gehienez ere sei hilabeteko epean, deialdia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, ekitaldi bakar batean ebaztiko du, eta erakunde interesdunei jakinaraziko zaie.

E pe barruan ebazten ez bada, pertsona edo erakunde interesdunak ezetsizat jo ahal izango du bere asmoa, hargatik eragotzi gabe organo eskudunak berariazko ebazpena emateko duen betebeharra.

### **11.- Diruz lagundu al daitezke eskudirutan emandako sariak? Noiz arte trukatu behar dira baleak edo bonuak diren sariak?**

Helburua da sariak tokiko merkataritzan eragina izatea, beraz, eskudirutan emandako sariak ez lirateke diruz lagunduko

Tokiko saltokietan gastatu beharreko baleak edo bonuak diruz laguntzeko epean trukatu behar dira, hau da, 2025eko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra bitartean.

**12.- Gauzatzeko eta fakturatzeko azken eguna 2025eko abenduaren 31 izango da. Zein da ordaintzeko azken eguna?**

Ordainketa-data 2026ko martxoaren 31ra artekoa izan daiteke, hori baita justifikazioaren azken eguna.

**13.- Nor da ekintza bakoitzaren onuraduna?**

Jarduerak denda guztiei zuzenduta egon behar dira, elkartekide izan zein ez.

**14.- Merkataritza-bonuaren kanpainaren justifikazioa.**

Merkataritza-bonuko kanpainak justifikatzeko, tiket eta ordainketa-egiaztagiri guztiak aurkez daitezke, edo Excel bat, tiket eta ordainketa guztien xehetasunekin, datu horien egiazkotasunaren zinpeko adierazpenarekin batera. Kasu horretan, tiketen eta ordainketen % 15eko laginketa eskatuko da.

**15.- Farmaziei buruzko argibideak.**

Farmaziak bonu-kanpainetara edo antzekoetara atxiki ahal izango dira, baina bakarrik onartuko dira sendagaiei ez dagozkien tiketak. Funts publikoekin finantzatutako sendagaiak, medikuak agindutakoak edo substantzia psikotropikoak edo estupefazianteak direnak ezin dira merkataritza-bonuan sartu. Gainerako sendagaiei merkataritza-bonua aplikatu dakieke publikoarentzako salmenta-prezioaren %10ean, gehienez.

**16.- Zeintzuk dira diruz lagundutako jardueretan parte har dezaketen merkataritza-establezimenduak? (Berriazko parte-hartzea eskatzen dutenak)**

Deialdi honetan, informazioa argiago emateko asmoz, txikizkako merkataritzaren eta lotutako zerbitzuen EJZren epigrafeen zerrenda sartu da aginduan. Epigrafe horiek onartzen dira jardueretan parte hartzeko, eta bat datoz MECen Aginduarekin. Informazio hori Hirigune 2026 Aginduaren IV. ERANSKINEAN dago jasota.

Horri dagokionez, Hirigune 2026 Aginduaren 15.4 e) artikuluan adierazten den bezala, justifikazio-aldian izapideak gardenago eta eraginkorrago egiteko proposamenarekin, jarduera bakoitzean parte hartzen duten eta esanbidez parte hartzen duten establezimenduen zerrendan horietako bakoitzari dagozkion JEZak sartzeko eskatzen da.

**17.- Hiriko merkataritza-jarduerarekin lotutako zerbitzuak.**

Merkataritza Establezimenduak Modernizatzeko Laguntzan (MEC) bezala, hiriko merkataritza-jarduerarekin lotutako zerbitzutzat hartzen dira ekonomia-jardueren gaineko zergaren epigrafe hauek:

- 691.1 Etxeko tresna elektrikoen konponketa.
- 691.9 Beste inon sailkatu gabeko bestelako kontsumo-ondasunen konponketa.
- 971 Garbitegiak, tindategiak eta antzeko zerbitzuak.
- 972 Ile apaindegiak eta apaindegiak.
- 973.1 Argazkigintza-zerbitzuak.
- 973.3 Makina fotokopiagailuen bitartez agiriak kopiatzeko zerbitzuak.

975 Markogintza-zerbitzuak.

**18.- Zer esan nahi du BEZetik salbuetsita egoteak edo BEZetik salbuetsita ez egoteak? Nola erregistratu.**

"BEZik gabe" dauden erakundeek fakturen erregistro-sisteman sartuko dute zenbateko osoa (BEZa barne). Izan ere, elkarte horientzako BEZa diruz lagundu daiteke.

Bestalde, "BEZetik salbuetsita ez dauden" elkarteei dagokienez, egiaztatu beharko da EJZ alta emanda dagoela. Gogoan izan behar da Hiriguneren laguntza txikizkako merkataritzara (64., 65. eta 66. epigrafeak Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan) eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergetan jasotako hiriko merkataritza-jarduerarekin lotutako beste zerbitzu batzuetara (aurreko atalean jasotakoak) zuzenduta dagoela. Zerbitzu horiek EJSN kodeen baliokideak dira. Elkartea Hiriguneren xede diren jarduera ekonomikoren batean alta emanda badago (lehen aipatutakoak), programan erregistratu beharreko zenbatekoa BEZik gabeko fakturarena da. Izan ere, kasu honetan BEZa ezin da diruz lagundu.

Bestalde, hainbanaketa-sisteman inskribatuta dauden eta txikizkako merkataritzara eta horrekin lotutako beste zerbitzu batzuetara bideratutako jarduera ekonomikoren batean alta emanda dauden elkarteei BEZaren zati bat diruz lagunduko zaie, hainbanaketaren ehunekoaren arabera. Adibidez, EJZren 659. epigrafean alta emanda dagoen elkarte bati, "txikizkako beste merkataritza bat" izenarekin, eta EJSNn baliokidea duena, 4773. epigrafean "farmazia-produktuen txikizkako merkataritza establezimendu espezializatueta" jarduera horretako hainbanaketa-erregimenean erregistratuta dago, % 35eko portzentajearekin, eta BEZaren gainerako % 65a lagunduko zaio.

Informazio hori elkarreragingarritasun-zerbitzuaren bidez kontsultatuko da. Hala eta guztiz ere, espedientearen azterketa teknikoa egiteko garaian teknikariek egoki irizitako dokumentazioa eskatu ahal izango da, izapideak egiteko..

**19.- Non sartu behar dira faktura jakin batzuetan egin beharreko atxikipenak, bereziki autonomoei egindako ordainketen kasuan?**

Faktura batzuetan egiten diren atxikipenak (ondoren dagokion ogasunean aurkeztu behar direnak) erregistratu behar den zenbatekoaren barruan sartuta daude, kontzeptu horiek diruz lagun daitezkeen gastuen parte baitira.

Batzuetan, fakturak diseinatzean, unean bertan egin beharreko ordainketa baino ez da nabarmentzen, zenbateko osoa kontuan hartu gabe (atxikipenak sartuta daude).

Laburbilduz, faktura erregistratzeko orduan, dena hartu behar da kontuan, baita ondoren kasuan kasuko ogasunei ordainduko zaizkien atxikipenak ere.

**20.- Zeharkako gastuak. Gehienez % 15. Nola kalkulatu?**

Gastu horiek kalkulatzeko, ekintzaren gastua hartu behar da oinarritzat, zeharkako gastuak kontuan hartu gabe. Ondoren, zeharkako gastu gisa egotz daitezkeen gehieneko zenbatekoa lortzeko kalkulua egiten da. Hiruko erregela gisa egin daiteke.

Adibidea:

Ekintza baten gastuak 1.200 €-koak dira. Zenbateko horren gainean kalkulatu da zeharkako gastuei egotz dakiekeen gehienezko % 15a.

Beraz,	1200€	-----	100 %
	X€	-----	15 %

$X = 1200 \times 15 / 100 = 180\text{€}$  ekintzari aplikatu dakiokeen gehienekoa, zeharkako gastuetan.

### **21.- Nola erregistratu diruz lagundu daitezkeen zeharkako gastuak?**

Dagozkion kalkuluak egingo dira, aginduan eta aurreko galderan azaltzen den bezala. Esan bezala, jarduketa bakoitzaren zenbatekoaren % 15 ezin izango da gainditu. Kopurua lortu ondoren, beste faktura bat balitz bezala erregistratuko da programan, baina, kasu horretan, "XX" jarriko da "Faktura-zk." atalean, eta "Kontzeptua" atalean "Diruz lagundu daitezkeen zeharkako gastuak" jarriko da. Azken helburua da programak aurrera egitea eta erregistratutako datuak biltzea.

### **22.- Nola erregistratu deskontu-bonuak izan dituzten ekintzak?**

Aurreko atalaren antzekoa. Deskontu-bonuak dakartzaten jardueren justifikazioetan, datuak programan iraultzeko orduan, tiketak gehitu behar dira. Kopuru osoa kalkulatu ondoren, sisteman erregistratu ahal izango da kopuru hori, "faktura-zenbakia" zutabean esleitzea erabakitzen den serie bat jarritz, adibidez: "FA1-2025" edo beste edozein.

### **23.- Zer dira aldaketak?**

Diruz lagundutako jarduketan barruan, aldaketak onetsi ahal izango dira jarduketa bereko ekintzen artean. Salbuespen gisa eta behar bezala justifikatuta, onetsitako jarduketan arteko aldaketak onartuko dira, bai eta ekintzak birformulatzea eta diruz lagundutako zenbatekoak birbanatzea ere. Aldaketa horiek berariaz baimendu beharko ditu laguntzak kudeatzen dituen organoak, egokitzat jotzen bada.

### **24.- Zer eragiten dute aldaketek jarduketan zenbatekoan?**

Proiektuaren memorian aurkeztutako jarduketaren batean beheranzko aldaketaren bat gertatzen bada, murriztu egingo da. Aldaketa hori goranzkoa bada eta, aldiz, beste jarduketa batzuetan hasieran aurreikusitakoa baino gutxiago inbertitu bada, ez da konpentsaziorik emango bien artean.

Hasieran aurreikusitakoa baino gehiago gastatzen bada, aurreikusitako hori baino ez da diruz lagunduko; oster, aurreikusitakoa baino gutxiago gastatzen bada, murrizketa egingo da. Azken batean, jarduketan aldaketak ezin dira konpentsatu elkarren artean eta ezin dira lotu.

Aurretik aipatutakoaz gain, hasieran aurreikusitakoarekin alderatuta beheranzko aldaketa hori % 25ekoa edo handiagoa bada, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galtzea eragin dezake, salbu eta sinatutako txosten baten bidez justifikatzen bada eta zehatz-mehatz jasotzen bada, nola bete diren laguntza emateko helburuak, beheranzko aldaketa hori gorabehera. Dokumentu horrek erakundeko arduradunaren sinadura izango du.

### **25.- Balorazio- eta partaidetza-adierazleak balorazio-aktan.**

Jarduketan gogobetetzearen eta eraginaren adierazleak balorazio-aktetan sartu behar dira, ekimenen eraginaren azterketa deskribatzaile batekin batera. Horien azterketan gehiago sakontzeko, horiek aktan sartzea eskatzen da, honela: parte-hartzaileen kopurua, atxikitako saltokiak, sare sozialetako bisitak, gogobetetze-inkestak eta abar. Era berean, adierazle horien analisi deskribatzailea egiteko eskatzen da. Horrez gain, jardueren eragin ekonomikoaren adierazle espezifikoagoak sartzeko eskatzen da, jarduera bakoitzean ordezkaturako txikizkako merkataritzaren sektorean inbertitutako zenbatekoa eta diru-sarrerara gisa ateratzen den zenbatekoa konparatzeko.

## 26.- Gastuen justifikazioa

2026eko Aginduan jasotzen den bezala, justifikazioaren zenbatekoa onartutakora egokitu beharko da (udalerraren muga aplikatu ondoren). Zenbateko horren arabera kalkulatzen da hainbanaketa, baldin eta erakunde onuradunei emandako guztizkoak laguntzara bideratutako zenbatekoa gainditzen bada.

Adibidez, % 85eko ehunekoak kalkulatzen bada, % 100 justifikatu beharko da, hori baita kalkulua egiteko oinarria, eta bat dator onartutako guztizko zenbatekoarekin. Berezitasun batekin: ez da konpentsaziorik egongo jarduera batzuen eta besteen artean, kalkuluak egiterakoan, salbu eta aurreikusitako kasuren batean egoteagatik eskatu bada eta berariaz onartu bada.

## 27.- Jarduketan kontratazioa jakinaraztea.

7.4 artikuluan honako paragrafo hauek jasotzen dira:

4.- *Diruz lagundutako jardueraren % 100 kontratatu ahal izango da. Kontratazio horrek Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 31. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko ditu.*

*Kontratazioa artikuluan horietan adierazitako ehunekoaren eta zenbatekoaren esparruan egiten bada, baimen hori emateko eskumena duen organoa Merkataritza Zuzendaritza izango da. Era berean, hirugarrenekin egindako kontratazioak kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoak gainditzen dituzenean — hau da, 15.000 euro edo gehiago, zerbitzu eta horniduretan sartu gabeko BEZa —, erakunde onuradunak alde aurretik eta behar besteko aurrerapenarekin jakinarazi beharko dio Merkataritza Zuzendaritzari, dokumentuak egiaztatzeko. Organo horrek alde aurreko baimena izapidetzea eskatu ahal izango du, hornitzailearen justifikazio, trazabilitate edo independentzia egokiari eragiten dioten inguruabarrak gertatzen direnean.*

Hau da, emandako laguntza osoari dagokionez kontratazioak ehuneko garrantzitsuak lortzen baditu, elkarteak Merkataritza Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio, behar besteko aurrerapenarekin, aipatutako artikuluan adierazitako balorazioak egin ditzan.